

ITSASGIZONAREN AZKEN KANTUA

Larunbat hartan, txakur bat gurutzatu zen Ane, Mikel, Ainhoa eta Xabierren parkerako bidean. Blai deitu zioten, busti-bustita baitzegoen. Etengabe zaunkaka ari zitzaien, eta segitzea erabaki zuten. Belardi Handiraino iritsita, banku batean zegoen zaku zahar bat hartu eta haurren oinetan utzi zuen zakurrak. Mezudun botila bat zegoen barruan. Bertan, argazki eta paper zahar bana. Azkenak hala zihoen:

*Nik banituen
Bi harribitxi
Pasaiaiko portuan.*

*Bat galdu nuen,
Bestea bainuen
bera baino gehiago maitatzen.*

Altxor gogoia piztu zitzaien haurrei. Gainera, Blairen jabea aurkitu zuten: Margari, ikaratua gaixoa, zakurra galdu zuelakoan. Harekin hizketan jakin zuten semeak dena bat zuela portuan, eta galdetzeraz joan ziren.

Joni (semeari) kontatu eta erakutsi zioten guztia. Sorpresa handia hartu zuten, izan ere, argazkiko emakumea Margari zen! Emakumeak jakinmina ase zien.

“Aspaldi da arrantzale eder batekin maitemindu nintzela. Aberatsa omen zen, bi altxorrekin: Ni, suaren koloreko harribitxi lehuna eta itsasoa, esmeralda basatia. Itsasoratzen zen aldiro uste nuen ez zela itzuliko, esmeralda maiteago zuela. Urdinaren basatitasun eta ezegonkortasunak mantentzen zuen bizirik, eta hark eraman zuen, azken besarkada itogarrian. Handik gutxira Jon jaio zen.”

Amaitutakoan sortutako hunkipena Blaik apurtu zuen, zaunkaka. Denak ohartu ziren atarian txori beltz pare bat zeudela. Bien artean mokoarekin eusten ari ziren gutunazala Margariren oinetan utzi, eta alde.

Andre gaixoak ez zuen sekula jakingo txoriek marinel kutuna ikusi zutela urdin maitearen altzoan lo, botila bat eskuetan, gorri biziko harribitxi bat gutunazalean. Ezin mokoarekin eutsi eta gaizkile batzuek, harribitxi gose, hartu zutela botila, beltzek goiz hartan lapurtu zieten arte.

Ezin jakin marinelak biziki maitatu zuela Margari urdinez, hark gorritz maitatu zuen bezalaxe...